

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Hasi da kontserbarako tomate-bilketaren kanpaina

*Lehorrean, ekilorearen, artaberdearen eta patataren aurrerapen fenologikoak darrai, non, prezipitazio gehiago itxaron diren ekoizpen-zikloari amaiera emateko*

Jueves, 18 de agosto de 2011

Abuztuaren 5etik 17ra bitarteko aldia eguraldi eguzkitsua nagusitzeak, urte-sasoia berezko dituen tenperaturek, 20-23°C, prezipitazio urriek eta ipar-osagaiko haizeak ezaugarritu zuten.

Egonkortasun meteorologikoak udako laborantzak modu uniformean eta pixkanaka heltzea ahalbidetzen du eta zenbait laboreren bilketa, besteak beste, tomate, kalabazin, patata eta frutarena oro har eta etengabe eta intentsuki gauzatzea.

Abuztuaren 8an, astelehenean, sartu ziren uzta-makinak landutako kontserbarako tomate-sailtan, Nafarroako soroetako labore ureztatuetako fruitu enblematikoetakoa, hain zuzen ere. Lehenengo emaitzak desberdinak izan dira. Zona batzuetan, Buñuelen, esaterako, bilketa eten egin da produktuaren heltze-maila oso desberdina delako; ondorioz, fruitu berde kopuru handia eman du eta industriak ez ditu onartu kolore faltagatik. Beste zenbait laborantza-lurretan, esaterako, Ablitasen, Alesbesen eta Caparroson, emaitzak onak izan dira.

Lehorrean, besteak beste, hazitako ekilorearen, artaberdearen eta patataren aurrerapen fenologikoak darrai, non, prezipitazio gehiago itxaron diren ekoizpen-zikloari amaiera eman ahal izateko.